

Legazpiko Agenda 21eko Foroaren akta

2014ko 3. tailerra

Gaia: Neurri berriak Legazpiko argiterian energia aurrezteko eta energiaren eraginkortasuna lortzeko

Eguna: 2014ko martxoaren 20an.

Lekua: udaletxeko Batzar Aretoan.

Ordutegia: 18:30etik 20:10era.



Gaurko tailerlean **ondoko gaiak** landu ditugu:



- Hasteko, Inmak datozen egunetan Legazpin burutuko diren hainbat ekimenen berri eman digu.
- Segidan, Legazpiko Agenda 21eko Tokiko Ekintza-planak 2013an zehar izan duen betetze-maila ezagutu dugu.
- Modu berean, 2014rako aurreikusi diren foroak eta landuko diren gaiak berrikusi ditugu.
- Eta azkenik, gaurko gai nagusian murgildu gara: udalerriko herri-argiterian energia aurrezteko eta energiaren eraginkortasuna lortzeko Udalak hartu dituen neurri berriak ezagutzea eta haien gainean hausnartzea.

Aztertu diren gaiak oso interesgarriak izan dira eta, horrezaz gain, tailerlean parte hartu dutenak gogotsu aritu dira. Bi gauza horien baturari esker tailer atsegina eta interesgarria izan dugu. Ikus dezagun.

1. Nortzuk? Tailerrean parte hartu duten pertsonak



Hona hemen gaurko tailerrean parte hartu dutenak:

Rosa Makibar – Montse Vallejo – Eugenio Gil – Edurne Huesa (Legazpiko Ingurugela) – Manuel Fernández - Rafael Gomez (Buskabaso) – Xabier Baztarrika (Buskabaso) - Mari Cruz Lizarazu – Mikel Alonso – Igor Rojo – Isabel Tatiegi – Juan Carlos Agirre - Arantxa Arizmendi (Legazpiko Udaleko zinegotzia)- Javier Iraeta (Legazpiko Udaleko zinegotzia) - Inma Hernandez (Legazpiko Udaleko Agenda 21eko eta iraunkortasun saileko teknikaria) - Igor Urrate (Legazpiko Udaleko zinegotzia) – Kepa Urzelai (alkatea) – Zorione Aierbe eta Iciar Montejo (Prometea).

Eskerrik asko guztioi! Benetan pozgarria da arratsaldeko hitzordua iristean lanerako prest datozen herritarrak hurbiltzen direla ikustea; batzuk ezagunak eta beste batzuk gaian interesa dutelako Legazpiko Agenda 21eko Forora gehitzen direnak. Ongi etorriak dira guztiak.

Eskerrik asko etorri eta Foroa aberastu duzuelako!

2. Zer? Tailerraren edukia: gaiak

... Berriak: hitzorduak eta informazio interesgarria

Tailerrari hasiera emateko, Inmak gogora ekarri digu...

... hain juxtu gaur sartzen garela udaberrian. Urte-saso alaienetakoa. ¡Goza dezagun!



Segidan, gogora ekarri digu:



- **Datorren apirilaren 3an, arratsaldeko 18:00etan, Legazpiko Gizarte-zentroan, Gipuzkoako Foru Aldundiak hiri-autobusen zerbitzua hobetzeko bilera irekia egingo duela.** Kepa Urzelai alkateak esan duenez, hobekuntza batzuk sartzea pentsatu da: linea berriak, maiztasunak handitzea eta ordutegiak zabaltzea... eta hori guztia legazpiarrekin kontrastatu nahi da. Interesgarria izango da!



- 2014an Legazpiko Udalak diruz lagunduko duela berriro INMA proiektua, hau da, eskualdeko osasunari, haurtzaroari eta ingurumenari buruzko proiektua. Zehatz-mehatz, aurten landuko den gaia hau da: **"Eremu elektromagnetikoen eragina haurdunaldietan eta haurren garapenean"** eta horren emaitzen informazioa jasoko dugu.

Bukatzeko, Inmak inauterietan burutu den ekintza baten berri ekarri du gogora. Aurten, udaletxeko balkoia apaindu egin da eta bertan jarritakoak Garaguneko neska-mutilek berrerabilitako materialarekin eskuz egindako lanak izan dira. Begira zein balkoi koloretsua eta deigarria.




... Agenda 21eko Tokiko Ekintza-plana: zein izan da 2013ko urte bukaeran bere betetze-maila?

Inmak adierazi duenez, urte bukaeran udaletxeko departamentuekin eta udalaz gaindiko erakundeekin (Sasieta, Ur Partzuergoa, Lenbur, Uggasa,...) elkartzen da ekitaldian zehar burututako ekintzak ebaluatzeko eta hurrengo urteko ekintzak antolatzeko.

Elkar lan horren ondorioz, 2013an:

Legazpiko Agenda 21eko Tokiko Ekintza-planaren ezartze-maila % 58koa izan da. Eta bere bilakaera, urtez urte, honakoa izan da:



Inmaren hitzetan: "Poliki poliki goaz. Bilakaera ona da eta garbi izan behar dugu ezinezkoa dela erabateko ezartze-maila batera iristea. Zergatik? Ekintzetako batzuk jarraituak direlako (beraz, ez dira inoiz amaitzen), planifikatutako beste batzuk denbora igaro eta gero zentzuzkoak ez direla ohartzen garelako, beste batzuk indarra galdu dutelako (% 18)... Dena den, oraindik etxeko lanak ditugu 2014an eta 2015ean egiteko".



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Kontu horri dagokionez, Kepa Urzelai alkateak hartu du hitza eta gobernu taldeak balorazio bat egin duela eta aurten ez dela Plana berrikusteko prozesua burutuko erabaki duela jakinarazi du. Berrikuspen lan hori 2015eko udal hauteskundeen ondoren egingo da. Modu horretan, gobernu talde berria izango da erronka hori hartuko duena eta plana berea egingo duena.

2014ko foroak eta gaiak berrikusten...

2014an noiz bilduko da foroa eta zein gai landuko ditu?

Mahai gainean jarri dira alde batetik, 2013an Foroak aukeratu zituen eta landu ez ditugun gai desberdinak eta, bestetik, Udalak Foroarekin aztertu eta eztabaidatu nahi dituen proiektu berriak; ondoren, aurreikusitako tailerren hasierako egutegia ikusita, hauxe da erabaki dena:

- **2 tailer gehiago egitea** –ekainean bat eta irailean beste bat-; eta, horren arabera, urriko tailerlean data desberdinen egokitzapena egitea.
- **Aztertzeko geratu diren gai guztiak lantzea.** Horrek esan nahi du 2014an zehar Foroak egingo dituen tailerren egutegia eta aztertuko dituen gaiak, gutxi gorabehera, honakoak izango direla:

Landuko diren gaiak	Noiz? Aurreikuspena
<ul style="list-style-type: none"> • Laubide auzoko zenbaki bakoitien eremua hobetzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Urtarrileko eta otsaileko tailerretan (dagoeneko eginda); eta apirileko tailerlean (apirilaren 15ean, asteartea).
<ul style="list-style-type: none"> • Energia: energia-eraginkortasuna eta aurrezkia herri-argiterian 	<ul style="list-style-type: none"> • Gaurko tailerlean.
<ul style="list-style-type: none"> • Eskola Agenda 21: biodibertsitatea 	<ul style="list-style-type: none"> • Maiatzeko tailerlean
<ul style="list-style-type: none"> • Kale Nagusia berritzea eta oinezkoentzako egokitzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Uda ondoren, bi tailerretan. Seguru asko, urrian eta abenduan.
<ul style="list-style-type: none"> • Foro "birtual" berria udal Web orrian • Ekintza-planean egin gabe dauden ekintzak 	<ul style="list-style-type: none"> • Ekaineko, iraileko edo azaroko tailerretan (gai bakoitza udaletxean nola garatuko denaren arabera).
<ul style="list-style-type: none"> • Kontsumo arduratsua eta hondakinak murriztea 	
<ul style="list-style-type: none"> • Airearen kalitatea eskualdean: ekintza-planaren zirriborroa 	



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



2014ko behin betiko egutegiari dagokionez, egin diren aldaketak sartuta honela geratuko da:

ENERO-URTARRILA

L	M	M	J	V	S	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Laubide auzoko hirigintza hobetu eta antolatu (zenbaki bakoitiak).

FEBRERO-OTSAILA

L	M	M	J	V	S	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28		

Laubide auzoko hirigintza hobetu eta antolatu (zenbaki bakoitiak).

MARZO-MARTXOA

L	M	M	J	V	S	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

Energia-eraginkortasuna eta aurrezkiak Legazpiko herri-argiterian.

ABRIL-APIRILA

L	M	M	J	V	S	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

Laubide auzoko hirigintza hobetu eta antolatu (zenbaki bakoitiak).

MAYO-MAIATZA

L	M	M	J	V	S	D
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

ESKOLA AGENDA 21. Neska-mutikoei Foroa 2013-2014ko gaia aztertzeko: Biodibertsitatea.

JUNIO-EKAINA

L	M	M	J	V	S	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

Aztertze geratu den gaien artean aukeratzeko, beti ere udal barruko lanaren arabera.

JULIO-UZTAILA

L	M	M	J	V	S	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

AGOSTO-ABUZTUA

L	M	M	J	V	S	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

SEPTIEMBRE-IRAILA

L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

Aztertze geratu den gaien artean aukeratzeko, beti ere udal barruko lanaren arabera.

OCTUBRE-URRIA

L	M	M	J	V	S	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Kale Nagusia berritu eta oinezkoentzako egokitu

NOVIEMBRE-AZAROA

L	M	M	J	V	S	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

Aztertze geratu den gaien artean aukeratzeko, beti ere udal barruko lanaren arabera.

DICIEMBRE-ABENDUA

L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Kale Nagusia berritu eta oinezkoentzako egokitu

... Herriko argiak: zein neurri hartu dira energia aurrezteko eta eraginkortasuna lortzeko?

UNESCOKo Etorbizuneko Belaunaldien Giza Eskubideen Munduko Adierazpenaren 1. artikulua **oinarri hartuta** honakoa adierazten da...

" Ortzia begiesteaz gozatzeko aukera emango duen gau-zero ez kutsatua izateko eskubidea, Gizadiaren ezin kenduzko eskubidetzat hartuko da, ingurumen, gizarte eta kultur arloko gainerako eskubideekin parekagarri; horretarako, herri guztien garapenean eta dibertsitate biologikoaren kontserbazioan duen eraginari jarriko zaio arreta."

Alkateen Itunak ere 2020. urtea baino lehen karbono dioxidoaren isurketak % 20 murriztea, energia-aurrezkiak % 20 igotzea eta energia berriztagarriak % 20 igotzea bilatzen du eta konpromiso hori ere geurea egin dugu...



Horrela, Legazpiko Udalak hitzarmen bat sinatu zuen 2013an EVE, Energiaren Euskal Erakundearekin. Hitzarmen horren arabera, udalerrian energia aurrezteko eta energiaren eraginkortasuna lortzeko politikak eta jarduketak hobetzeko konpromisoa hartu da. Zehazki, **herriko argiak aztertzeari ekin diogu.**

Testuinguru horretan, **zein da abiapuntua?**. Hona hemen 2011ko datuak:

Abiapuntua (2011. urtea):
<ul style="list-style-type: none">• Udalak berotegi-efektuko gasak isurtzen ditu eta horietako % 39 herriko argiekin isuritakoa da.
<ul style="list-style-type: none">• Herriko argien urteko kontsumo elektrikoa 1.180,937 kilowatt-ordukoa da. Udal eraikinen kontsumoa baino % 4,2 handiagoa.

Eta zein neurri hartu ditu edo hartzea aurreikusi du Udalak? Kepa Urzelai alkateak azaldu duenez, jarraian azkeneko urteotan herri-argiterian energia aurrezteko eta energiaren eraginkortasuna lortzeko Udalak eman dituen urrats nagusiak adierazten dira.

Herriko argiak: helburuak, esku-hartzearen eremuak eta Udalak burututako jarduketak nagusiak 2012. eta 2014. urte artean

Udalaren helburuak herriko argiei dagokienez:

- Kontsumoa murriztea, potentzi txikiagoko bonbillak jarritz eta, une oro, indarrean dagoen araudian jasotako gutxieneko argitasuna bermatuz.
- Argi kutsadura murriztea.
- Kaleko argiaren banaketa bateratzea.
- Fatxadetako farolak kentzea eta zutikakoak jartzea; eta, ahal den neurrian, erabili egiten dira erretiratzin diren farolen buruak.

Koadro elektrikoak:

- 14 koadrotan (guztien % 32) fluxua murrizteko gailuak jarri dira. Fluxua murrizteko gailuekin gaueko 23:00ak eta goizaldeko 5:00ak bitartean dagoen argiaren edo argitasunaren % 30 murriztea lortzen da eta, ondorioz, kontsumoa murrizten da.
- Udalaren helburua koadro guztietan fluxua murrizteko gailuak edo presentzia-detekttagailuak jartzea da.
- Orain, koadro elektrikoaren % 84 erloju astronomikoaren bidez aktibatzen dira. Lehen fotozelularen bidez aktibatzen ziren baina zelula horiek ez dira efizienteak eta mantentze-lan handiagora behar zuten. Erloju astronomikoak automatikoki kalkulatu eguzkia noiz aterako den eta noiz sartuko den.



Farolak:

- Gaur egun, Legazpin 2.241 farola daude, gutxi gorabehera, eta denak ez dira berdinak, 83 modelo daude. Arrazoi ezberdinengatik (estetika, mantentze-lana eta eraginkortasuna) Udalak bateratu egin nahi ditu farolak eta 10 modelo baino gutxiagora murriztu nahi du modelo-kopuru hori.

2012an udal langileekin (argiketari 1) energia aurrezteko burutu diren jarduketak:

- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • San Juan auzoa 1 eta 6 atari bitartean bikoiztuta zeuden 9 farola kendu dira. | <ul style="list-style-type: none"> • Energia-aurrezkia: 1.350 w • Diru-aurrezkia: 1.080 €/urteko |
| <ul style="list-style-type: none"> • 87 bonbilla aldatu dira eta potentzi txikiagokoak jarri dira, udalerriko zonalde desberdinetan. | <ul style="list-style-type: none"> • Energia-aurrezkia: 3.500 w • Diru-aurrezkia: 2.800 €/urteko |



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Herriko argiak: helburuak, esku-hartzearen eremuak eta Udalak burututako jarduketak nagusiak 2012. eta 2014. urte artean

2013an udal langileekin (argiketari 1) energia aurrezteko burutu diren jarduketak:

- Orain arte, Udalak enpresa desberdinekin zituen kontratuak, koadroen potentzien arabera.
- Kontratu guztiak berrikusi dira eta 2013an Legazpiko Udala **Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio-zentralera** atxiki da, prezio hobetoak lortzeko helburuarekin.
- Koadro elektrikoak: falta ziren koadroetan fluxua murrizteko gailuak jarri dira eta izorratutakoak konpondu dira.
- 69 farola kendu dira zonalde desberdinetan: Bikuña-Motxorro industrialdean, Laubideko aldapan, parrokia pareko eskaileretan...
 - Energia-aurrezkia: 10.350 w
 - Diru-aurrezkia: 8.280 €/urteko
- 14 farolen buruak ordeztu dira: 5 Arantzazu auzoan eta 9 Kale Nagusian. Potentzia txikiagokoak jarri dira, argitasuna mantenduz (lumenak).
 - Energia-aurrezkia: 1.300 w
 - Diru-aurrezkia: 1.040 €/urteko
- **Herriko argien gaineko urteko fakturan lortu den benetako diru-aurrezkia: 18.098 €.** Hau da, urteko fakturaren totalaren ia % 10 eta aurten prezioak igo egin direla kontuan hartuta.
- **2009tik hona, lehen aldia da herriko argien kontsumo elektrikoa murriztea lortzen dela.** Urteko % 10eko hazkundearen parean, 2013an ia % 15 jaitsi dugu kontsumo elektrikoa.

- **2014rako, Udalak 2 argiketari kontratatzea aurreikusi du.** 5 hilabete egingo dute lan aurreikusitako jarduketak burutzen. Kontratazio-oinarrietan, Udalak kontratatutako diren pertsonak Legazpikoak edo eskualdeak izatea lehenetsi du eta egin beharreko lanak egiteko izan beharreko titulazioa izatea eskatu du. Gainera, baremoa ezartzeko irizpideetan bestelako kontuak sartu dira, hala nola: lan gabe egotea, seme/alabak bere kargura izatea, emakumea izatea,.....

- **Energia aurrezteko 2014rako aurreikusi diren jarduketak honakoak dira:**

1. Bikuña-Motxorro industrialdean:

- Dauden farolak kenduko dira eta haien ordeztu banakako erregulagailuak izango duten LED farolak jarriko dira.
- Farola-kopurua gutxituko da: 2 faroletatik 1 utziko da.
- Farolen zutoinen altuera handitu da: 4 metrotik 6 metrora.
- Potentzia murriztu da.
- Gutxi gorabeherako aurrezkia: % 71, 19.000 w-tik 5.500 w-ra.

2. Plazaola kalea 1-11:

- 150 w-ko 40 farola ordeztuko dira eta LED argiko 42 farola jarriko dira. Farola horiek erregulagailu indibiduala izango dute eta potentzia gutxiago (36 farola 60 w-koak eta 6 farola 50 w-koak). Gehitu diren 2 farolak, oinezkoen pasabideak argitzeko jarri dira.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Herriko argiak: helburuak, esku-hartzearen eremuak eta Udalak burututako jarduketa nagusiak 2012. eta 2014. urte artean

- Gutxi gorabeherako energia-aurrezkia: % 59, 6.000 w-tik 2.460 w-ra.
- Gutxi gorabeherako diru-aurrezkia: 2.832 €/urteko.

Herriko argiak: helburuak, esku-hartzearen eremuak eta Udalak burututako jarduketa nagusiak 2012. eta 2014. urte artean

- **Hauek dira energia aurrezteko 2014rako aurreikusi diren jarduketak:**

3. Nafarroa kalea:

- 150 w-ko eta 250 w-ko 17 farola kendu eta 50 w-ko LED argiko 25 farola jarriko dira. Fatxadako farolak kendu eta zutikakoak jarriko dira.
- Gutxi gorabeherako energia-aurrezkia: % 63, 3.350 w-tik 1.250 w-ra.
- Gutxi gorabeherako diru-aurrezkia: 1.680 €/urteko

4. Azpikoetxen, geltoki azpiko urbanizazio berria:

- Obra-proiektuan 100 w-ko 45 farola jartzea zegoen aurreikusita. Udalak proiektua aztertu du eta 60 w-ko LED argiak jartzea erabaki du.
- Gutxi gorabeherako energia-aurrezkia: % 40, aurreikusitako 4.500 w-tik 2.700 w-ra.
- Gutxi gorabeherako diru-aurrezkia: 1.440 €/urteko.

5. Urtatza 40-51:

- 150 w-ko 15 farolak kendu eta 60 w-ko LED argiko farolak jarriko dira.
- Gutxi gorabeherako energia-aurrezkia: % 60, 2.250 w-tik 900 w-ra.
- Gutxi gorabeherako diru-aurrezkia: 1.080€/urteko

6. Urtatza auzoa:

- 3 koadro elektriko bateratuko dira, urtean 700 € aurreztuz.
- 46 faroletan fluxua % 30 murrizteko aukera.
- Gutxi gorabeherako energia-aurrezkia: % 50, 14.000 w-tik 7.000 w-ra.
- Gutxi gorabeherako diru-aurrezkia: 5.600 €/urteko

Legazpin energia berriztagarriak sortzeari dagokionez:

- 2011. urteko datuen arabera, energia berriztagarriaren udal ekoizpen elektrikoa hauxe izan da: 15.600 kW/orduko.
- Udala iturri berriztagarrietatik lortutako energia sortzea ahalbidetuko duen neurri edo teknologiaren bat aplikatzeko aukera aztertzen ari da. Horretarako, GOINER kooperatibarekin lankidetzan aritzea aztertzen ari da.



Alkatearen azalpen horien ondoren, taldeak hainbat ekarpen, hausnarketa eta galderak egin ditu. Hona hemen:

- **Galdera: Ze inbertsio egin behar du Udalak jarduketa horiek burutzeko?** Kepa Urzelai alkatearen hitzetan: "Farola berri bakoitzak 350 €ko kostua du. 2014ko aurrekontuetan, gai honetarako 160.000 € aurreikusi ditugu. Eta, gainera, Energiaren Euskal Erakundetik (EVE) diru-laguntzaren bat jasotzea espero dugu. Agian "ikusten ez den" inbertsioa da baina, hala ere, oso onuragarria da ingurumenerako eta ekonomiarako.
- **Galdera: Zein neurri hartu dira farola desberdinen modeloak jar ez daitezzen?** Kepak adierazi duenez, "Udalak zein farola mota nahi duen zehaztu du -gehienez 10 modelo-; eta urbanizazio-proiektuak modelo horietara egokitu beharko dira".
- **Galdera: Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralak, energia berdea erosten du edo prezioari bakarrik erreparatzen dio?** In situ galdera horri erantzun ezin bazaio ere, foroaren ondoren Udalak galdetu egin du eta hauxe izan da erantzuna: "energia berriztagarrietatik sortutako eta hornitutako energia elektrikoaren gutxieneko portzentajea % 21,1ekoa da".
- **Hausnarketa:** Hartu beharreko neurriak hartzen badira energia eta dirua aurrezteko lortzen dela ikusita, gai horretan erabateko dedikazioa izango duen pertsona bat kontratatzea merezi du. Inbertsioa soberan gainditzen da.
- **Hausnarketa:** Aurkezpenetik honakoa ondorioztatzen da: gure ahulgunea udalerrian bertan energia berriztagarriak ez sortzea dela. Udalak landu egin behar du gai hori, energiarekiko dugun mendekotasun-maila murrizteko; eta gainera, ekoizpen-era desberdinen arteko oreka hartu beharko da kontuan (biomasa, minihidraulikoa, fotovoltaikoa, geotermia...) eta "energia hoberena kontsumitzen ez dena" dela ahaztu gabe.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



3. Tailerraren amaiera eta hurrengo hitzordua

Eta hausnarketen artean, tailerraren amaierara iristen gara. Agur esaten diogu elkarri, hurrengo hitzordura arte. Gogoan izan!: **apirilaren 15ean, asteartean, arratsaldeko 18:30ean elkartuko gara Laubideko eskolaurrean. Zain izango gaituzue!**

Eskerrik asko guztioi!

Eskerrik asko, guztion artean, horren tailer ederra egiteagatik